

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
1 positibo berri	1.584 hildako	4 positibo berri	516 hildako
2.265 positibo guztira*	18 UCIn, EAE	5.340 positibo guztira	9 UCIn
*Hernanin 61 Astigarragan 21		Sendatuak EAEn: 17.336: Naf: 7.258	

Udaleku irekiak eta kirol udalekuak egingo dira, segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriekin

6 eta 10 urte bitarteko gaztetxoentzako udaleku irekiak egingo dira, 11 eta 12 urtekoentzako aldiz kirol udalekuak. Hala ere, txikienek ez dute udaleku irekietan parte hartzeko aukerarik izango, ezin izango delako segurtasuna bermatu.

HERANI UDALEKUAK

Covid-19ak sortutako osasun alarmaren eraginez, «jende pilaketak sahiestea eta segurtasun distantzia mantentzea derrigorrezkoa da gaitzaren hedapena saihesteko». Hori kontutan hartu du Hernaniko Udalak, eta jakinarazi du, udalekuak ohi bezala antolatzea ezinezkoa izan dela. Hala ere, haurren aisialdirako eskubidea ahal den neurrian bermatzeko asmoz, 6 eta 10 urte bitarteko umeentzat udaleku irekiak antolatu dituzte, eta horrez gain, 11 eta 12 urte bitartekoentzat berriz kirol udalekuak, «moldaketa batzuekin».

Txikienek, udalekuetan ezin izango dute parte hartu, izan ere, 3 eta 5 urte bitarteko udaleku irekiak bertan behera gelditu baitira, «segurtasun neurriak bermatzeko ezinezkoa izan zai-gu» azaldu du Udalak.

Eusko Jaurlaritzak, ekainaren 7an, alarma egoeraren 3.fasea arautzen duen dekretua argitaratu zuen, eta bertan neurri «murriztaileak» ezartzen dira, hala nola, udalekuen parte hartze kopurua «gehienez 200 lagunekoa (begiraleak barne) izan daitekeela». Hori kontutan hartuta, 3 eta 5 urte bitarteko udaleku irekietan ezin direla bermatu adierazi du Udalak, eta ondorioz, «3 eta 5 urtekoen izen ematea bertan behera geldituko da automatikoki». Baina aipatu moduan, bai eskainiko dira 6 eta 10 urte bitartekoentzat udaleku irekiak, eta 11 eta 12 urte bitartekoentzat kirol udalekuak, «moldaketekin».

6 eta 10 urtekoentzako, udaleku irekiak

2013 eta 2012 urteetan jaiotakoek, uztailearen 15era izango dituzte udaleku irekiak hain zuzen, astelehenetik ostiralera, goizeko 09:30etatik eguerdiko 13:00etara. Aldiz 2011 eta 2010 urtean jaiotakoek, uztailearen 16an hasiko dira, eta 30an amaituko dute. Hauek ere, astelehenetik ostiralera, goizeko 09:30etatik eguerdiko 13:00etara.

Txanda bakoitzeko prezioa 60,5 eurokoa da eta partaide kopurua mugatua izango da, hala ere «ez da izen emate eperik zabalduko». Udaleku ireki hauek, aire librean egingo direla jakinarazi du Udalak, «euria egiten duenean ere bai, herriko aterpeak erabiliko dira». Gainera ohi baino topaleku gehiago erabiliko dira aurtengoan.

11 eta 12 urtekoentzako, kirol udalekuak

Taldean tamaina murriztu denez, 8 eta 9 haur izango dira taldean, eta begirale bakarra talde bakoitzean. Segurtasun eta higie neurriak zorrotz direla ere argi utzi du Udalak. Horrez gain, ekintzak moldatu egin dira, «ahalik eta kontaktu gutxien izan dezaten partaideek euren artean». Datari dagokionez, aurreko urtekoa mantendu da, uztailearen 6tik 24ra. Kirol udalekuetan ere topaleku gehiago egongo dira, eta 98 euro ordaindu beharko da tasa.

Segurtasun neurriak, higie neurriak eta protokoloak

Haurren artean bi metroko distantzia ez badago, maskarila



6-10 urte bitarteko, eta 11-12 urte bitarteko gazteek, udaleku ireki eta kirol udalekuez gozatzeko aukera izango dute.

jantzi beharko dute, eta gainera «egunero ekarri beharko dute etxetik». Sukarra hartuko zaie haurrei, eta sintomak izan ote dituzten galdetuko zaie guraso, tutore edo arduradunei.

Haur bakoitzak, «bere beharrezko materiala eramango du, ura barne». Gainera, Udalak azaldu du, gurasoei sinatzeko eskatuko zaiela, parte hartzeko baldintzak onartzeko eredia, informatzeko betebeharrak eta baimen informatua, eta onarpen dokumentua.

Baja emateko azken eguna, gaur
Gaur da baja emateko azken eguna, eta link honetan egin daite: <https://labur.eus/cVgqY>.

Ekainaren 15etatik aurrerako baja eskaeren kasuetan, matrikula osoa kobratuko dela jakinarazi du Udalak.

Eta zalantzak edukiz gero edo argibideak nahi izanez gero, gazteria@hernani.eus era idatzi edo, 943 33 70 04 telefonora deitu. **K**

Astigarragan ere, udaleku irekiak

Astigarragan ere, udaleku irekiak antolatu dira eta gaur da azken eguna izena emateko.

ASTIGARRAGA UDALEKUAK

Aurten, Xaguxar aisialdi taldeak udalekuekin aurrera egitea erabaki du, eta gaur da udaleku irekietan izena emateko azken eguna.

Parte hartzaileak, 4 eta 12 urte bitarteko haurrak izango dira. Eta lau txanda egongo dira aukeran, hala nola, ekainaren 29tik uztailearen 10era, uztailearen 13tik 24ra, abuztuaren 3tik 14ra eta abuztuaren 17tik 28ra.

Txandako, 60 euro izango dira. Eta %20 eko beherapena eskainiko da izena emandako

bi senideetako bati, edo familia ugari haur bakoitzari. Hala ere, hobari hau eskatzeko beharrezkoa da Astigarragan erroldatua izatea.

Izen ematea eta informazioa

Izena emateko azken eguna gaur da, <http://www.xaguxar.org/2020/06/udaleku-irekiak-2020/> linkean sartuz egin daiteke.

Informazio gehiagorako: info@xaguxar.org helbide elektronikora idatzi daiteke edo 943 33 50 64 telefonora deitu.

Amodioz betetako 60 urte elkarrekin ospatzen dituzuelako,
ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO!
Maite zaituztegu.
Manolo eta Txaro
1960-6-12

Martutene Lanbide Eskola
Oinarrizko Lanbide Heziketa
ELEKTRIZITATEA
ELEKTRONIKA
INFORMATIKA
KOMUNIKAZIOAK
AURREMATRIKULA
2020.06.01 - 2020.06.19
943 46 01 45 / 610 787 001
info@fpmartutene.org
fpmartutene.org



GAUR Gaur hego-haizea gailenduko da eta zaparrada batzuk ere botako ditu. Hego-mendebaldeko haizea indartsu ibiliko da eta leku askotan giro ezatzegina sortuko du. **Min.10° / Max.20°**



BIHAR Bihar arratsaldean hodeiak ugartuko dira. Goizean giro nahiko atsegina espero dugu, hodei eta urdinekin, eta haizeak hego-mendebaldetik joko du. **Min.13° / Max.21°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Hainbat dirulaguntza eskatzeko epea berriro zabalik, Astigarragako Udalak

Koronabirusaren ondorioz, administrazio epe guztiak etenda gelditu ziren. Hala ere, administrazio epeak ireki dira, eta dirulaguntzetan izena emateko aukera dago berriro.

ASTIGARRAGA UDALA

Covid-19ak sortutako egoeraren ondorioz, administrazio epe guztiak etenda gelditu ziren, eta une horretan, Udalak zenbait dirulaguntza deialdien izen emateak irekita zituen: kultura, euskera eta jai arlokoak; berdintasun arlokoak eta gizarte zerbitzuen arloko hainbat dirulaguntza, hain zuzen.

Hala ere, dagoeneko, epeak

ireki direnez, aipatutako dirulaguntzetan izen emateko aukera dago berriz ere.

Berdintasun arloko dirulaguntzen eskaera aurkezteko epea, ekainaren 22an amaituko da, eta Udalak jakinarazi du «herrian emakumeen eta gizoneen berdintasuna sustatzeko helbururarekin lotutako programa, proiektu eta jarduerak aurrera eramateko dirulaguntzak» direla.

Kirol arloko dirulaguntzei dagokienek, ekainaren 22an amaituko da eskaera aurkezteko epea. Aldiz, kultura, euskera eta jaien arloko dirulaguntzak aurkezteko eskaera epea, ekainaren 23an amaituko da. Eta Udalak jakinarazi du xedea dela, «kultura sustatu eta zabaltzeko eta jai giroko urteko programa eta jarduerak laguntzea».

Gizarte zerbitzuen arloko dirulaguntzak berri, ekainaren 30ean amaituko dira, eta bertan lau dirulaguntza modalitate aurreikusitakoak dira, Astigarragako Udalaren webgunean daude ikusgai: www.astigarraga.eus. **K**

'Suzko irudiak' gaur arratsalderako

Gaur arratsaldeko 19:30etan, Nagore Legarretaren 'Suzko Irudiak' erakusketa ikusteko aukera egongo da, hemen: <http://labur.eus/LuxnF>

HERNANI ERAKUSKETA

Gaur arratsaldeko 19:30etan, Hernaniko Kulturaz gozatzeko,

online programazioaren baitan, Nagore Legarreta argazkilaria-aren erakusketa egongo da ikusgai.

India eta «poxpolo kaxa»

Gaurko saioa 'Suzko irudiak' izango da. Bertan, Indian poxpolo kaxa bat erabilia egindako irudiak jaso ditu, haien inguruko azalpen eta bideo batekin. Saioak ez du iraungo 15 minutu baina gehiago. Hernaniko Udalaren webgunean egongo da ikusgai, 'Suzko irudiak': <https://labur.eus/LuxnF>. **K**

Udako ikastaroak prest, Hernanialdeko AEKk

Martxan dira Hernanialdeko AEKk antolatutako autoikaskuntza ikastaroak. 252 eurokoa da ikastaroaren prezioa.

ASTIGARRAGA HERNANI AEK

Ate joka daukagu uda, eta hori aprobetxatuz, Hernani aldeko AEKk, udako ikastaroak antolatu ditu.

Honako ikastaro hauek, uztaila eta irailean izango dira,

eta guztira 70 ordukoak izango dira.

252 eurokoa da ikastaroaren prezioa, eta hainbat maila eskura daitezke bertan, hala nola, A1 mailatik C1 mailara arte. Horrez gain, A2 eta B1 mailak egiaztatzeko aukera ere badago, eta azkenik B2 eta C1 mailako azterketak egiteko aukera ere eskaintzen dute.

AEKk jakinarazi du Astigarragako eta Hernaniko Udalen, diruz lagunduko dutela ikastaroan.

Informazio gehiagorako, idatzi, hernani@aek.eus-era edo astigarraga@aek.eus helbidera, edo deitu 607 592 864 ra. **K**

Bihar meza, Ereñotzun

EREÑOTZU ELIZA

Bihar, San Antonio eguna dela eta, Ereñotzuko elizan meza eskainiko da. Prebentzio neurriak kontutan hartuz, elizaren inguruan aulkiak egokituko dira, 10:30etan egingo den meza nagusirako. Autobus zerbitzua ere eskainiko da, goizeko 07:30etan, eta 10:00etan, bi zerbitzuak Hernanitik aterako dira, aipatutako orduetan.

Xalaparta irekiko dute gaur

HERNANI XALAPARTA

Gaur irekiko da Xalaparta elkarte, orain arte, Koronabirusak eragindako egoeratik itxita egon baita. Jakinarazi dute, elkarteko urteurrena, eta 'Hernaniar Bikainaren' omenaldia atzeratu egingo direla. Aurrerago zehaztuko dute elkartekoek noiz izango diren aipatutako ekitaldiak.

Enkartelada, gaur

HERNANI ENKARTELADA

Gaur arratsaldeko 20:00etan, enkartelada egiteko deia luzatu dute, Gudariaren Plazatik abiatuta, «euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideak aldarrikatzeko». Gainera, gaurko enkartelada, Sarerekin batera egingo da, *Izan Bidea* dinamika elkarrekin jarri baitute. Enkarteladako kide bakoitzaren metroak zenbatuko dituzte eta guztiena batuko dute, *Izan Bidea* egitasmoa oinarri hartuz. Bertaratzeko eta parte hartzeko deia luzatu dute.

Musika Eskolan, izen emate epea

HERNANI MUSIKA ESKOLA

Gaur da Hernaniko Musika Eskolan izena emateko azken eguna, zuzen.musika@hernani.eus helbidera idatziz edo 943 33 70 50 telefonora deituz egin daiteke, edo hitzordua eskatu, eta bertaratzuz.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzeko duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

AMAYA IRAZUSTA OCARIZ

Martxoaren 22an hil zen, 71 urte zituela

Semeak: Iñigo eta Edurne Artano, Xabier eta Ainara Errazkin; bilobak: Jone eta Iker; anai-arrebak: José Ignacio, Luis (†), Ana eta Enrique; izaba: Eugenia Ocariz; ilobak: Dani eta Estibaliz, Fernan.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **BIHAR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, **Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



Hernanin, 2020ko ekainaren 12an

Beti izango zaitugu gure bihotzean.

ETXEKOAK

X. URTEURRENA

Bernardina Irazusta Jauregi

1926-2-4 * 2010-6-12



Hernanin, 2020ko ekainaren 12an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

aurreMATRIKULA

Ekainak

1 → 19

03 GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Animazio Soziokulturala eta Turistikoa
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

HERNANI LANBIDE HEZIKETA

GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII
CIPF INNOVACIÓN SOCIAL

02 ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak (eskaintza partziala modalitatean)

Prestakuntza lanbidea etorkizuna

01³ OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

- Elektrizitatea eta Elektronika
- Elementu Metalikoen Fabrikazioa

943 5519 58

idezkaritza@hernanilanh.eus

Karmelo Labaka 7, 20120 Hernani

HERNANILHII

www.hernanilanh.eus